



MURUETAKO UDALA

BANDOA

SAN JUAN BEZPERA 2020

COVID-19ren krisiaren ondorioz bizi dugun egoera, bizitza normaltasunera itzul daitekeen uneari buruzko zalantzak, egoera hori ahalik eta lasterren konpontzeko ezarritako neurriak betetzeko guztiok dugun erantzukizuna, eta gizartearekin, oro har, eta udalerrri honetako bizilagunekin dugun konpromisoa kontuan hartuta, Udalak San Juan Bezperako ospakizuna bertan behera uztea erabaki du.

Erabaki zaila da, eta horregatik itxaron dugu denbora bat iragartzeko, agian egin behar ez izateko itxaropenarekin. Ospatzea ia ezinezkoa zela jakinda ere, tristura handia sortzen du beti gogotsu itxaroten den ospakizun bat bertan behera uzteak, gure eguneroko ohiturari une ezberdin eta bereziak, orain bereziki faltan botatzen ditugun senide eta lagun bilerak, eta udak gozatzeri gonbidatzen gaituen egun hauetan kalean dauden unekak.

Horregatik guztiagatik, Udaletxeko argiak piztuko dira gaueko hamaiketan San Juan Bezperako ekintza sinboliko bezala.

Udaletik, ziur gaude erantzukizunaren zentzuak ulerkor egingo zaituztela erabaki honekin, eta ulertuko duzuela gu guztion onerako egiten dela.

Murueta, 2020ko ekainaren 19an.

Julen Karrion Lamikiz

Muruetako Alkatea

